Eskubideak Ditugu

# KORRIKA EGIN ETA KONTATZEA



edex



**Testua:** Gladys Herrera
**Marrazkia:** KAIA
**Kolorea:** María Terrazas eta Tote Azkona
**Diseinu grafikoa:** Alfredo Requejo
**Ideia eta zuzendaritza**: Roberto Flores

ISBN: 978-84-17774-27-1
Lege-gordailua: BI-1494-19

edex

© Edex 2019 / edex@edex.es / www.edex.es

Debekatuta dago kopiatzea, osorik edo zati bat, edozein prozedura erabilita, aldez aurretik argitaratzaileen idatzizko baimena lortu gabe.

# KORRIKA EGIN ETA KONTATZEA



Neska-mutikoek eskubidea dute intimitaterako, beraien gorputza eta sentimenduak zaurituak ez izateko, lanik ez egiteko, ez eta errekrutatu edo esplotatuak izateko ere.





*Larunbatetan,
nire dantza-eskola
bukatzen dudanean,
etxera joateko
autobusa hartzen dut.
Autobusera igotzen
naiz, jesartzen naiz eta
leihotik begiratzen dut.*


Kaletik doan jendea eta automobilek ikusten entretenitzen naiz.


*Behin leihotik begiratzen hain distraituta nengoenez, ez nintzen ohartu nire ondoan gizon bat, arrunta, jesarri zela.*


Nire etxera heltzeko bi edo hiru geltoki falta zirenean, tupustean, gizon arrunta disimuluz nire hankak ukitzen hasi zen.


Nik ez nekien zer egin, oso ikaratuta bainengoen.



*Ahal nuen bezala altxatu nintzen; irten nintekeen mugi zedin eskatu nion, eta bere aurretik igarotzean bere eskuak nire ipurdian jarri zituen.*



*Amorru izugarria sentitu nuen baina ziztu bizian atera nintzen.*



*Txirrina hainbat aldiz jo nuen eta autobusa berehala gelditu zen.*


Autobusetik salto egin nuen
eta etxeraino korrika
joan nintzen.


Gizon hura nire atzetik zetorrela iruditzen zitzaidan.
NKiR






*Etxera heldu nintzenean,
nire ama atarian zegoen
erosketekin. Agurtu ninduen,
eta nik negarrari eman nion.*



–Zer gertatzen zaizu?



–Ez egin negarrik.
Kontaidazu zer
gertatu zaizun...



–Ikaragarria izan da, ama...!

–Baina zer gertatu zaizu?
Kontaidazu, bada.



–Gizon batek, ama,
gizon batek...

–Gizon batek, zer,
zer egin dizu?

–Hankak eta ipurdia
ukitu dizkit.





–Zerri hori!

–Ahal bezain azkar irten naiz korrika egiten.



–Arras ausarta izan zara.

–Korrika egiten nuen bitartean ez niola inori kontatuko pentsatzen nuen... gertatutakoak lotsarazten ninduen.

–Lotsarazten zaituela? Gizon hura da lotsatu behar dena. Bera izan da abusatu duena. Zuk primeran egin duzu hortik alde egiten eta niri dena kontatzen. Eskerrik asko nigan konfiantza izateagatik.





*Nire amak dio nahiago lukeela gauza hauek gertatzen zaizkien neska-mutil guztiek nik egin nuena egingo balute: ihes egiteko korrika egitea eta laguntza eskatzeko gertatutakoa kontatzea. Inork, ezta nire senideek edo lagunek ere, ez du nire gorputza nire borondatearen kontra ukitzeko eskubiderik.*

***Inork!***

# KORRIKA EGIN ETA KONTATZEA

Pertsona guztiek eskubidea daukate beraien gorputza nork ukituko duen eta nork ez erabakitzeko. Hori dela eta, Elena oso gaizki sentitu zen autobusean gizon ezezagun batek eskuak ipurdian jarri zizkionean. Zorionez, oso gauza garrantzitsu bi egin zituen: lasterka egin, ihes egiteko, eta kontatu, laguntza eskatzeko.

***Eskubideak Ditugu***-k 6 urtetik gorako neska-mutilak dituzten familiei hurbiltzen die Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa.

**Bildumako liburuak:**

- **Berdintasuna** / *Lagunen eskua*
- **Osasuna** / *Hitzez hitz*
- **Ongizatea** / *Hainbat hobe norbaitekin*
- **Hezkuntza** / *Letratxoa*
- **Babesa** / *Korrika egin eta kontatzea*
- **Nortasuna** / *Esaten dutena, esaten dutela*
- **Lehenengo haurrak** / *Automobilek loditzen dute*
- **Parte-hartzea** / *Komunaren hondamena*
- **Familia** / *Oso familia normala*
- **Jolasa** / *Harat-honat korrika*